

45E/2025 Ebazpena, abuztuaren 28koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, ondoko deialdiaren esleipena ebazten duena: "Euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako laguntzen deialdia".

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4635-2025-000000**

UNIDAD GESTORA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tel.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako laguntzak

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak txosten bat aurkeztu du, non proposatzen baita 2025eko laguntzak ematea euskarazko hedabideen berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuei, ebazpen honen bidez. Laguntza horiek Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzak eta Euskarako kontseilariaren ekainaren 3ko 70E/2025 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Unitate kudeatzaileak eskaerak ebaluatu ditu, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat, eta onuradunek laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatu du.

Hala, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Eskatutako laguntzak esleitzea hurrengo taulan jasotako onuradunei. 30.000 euro B30002 B3200 4709 334100 "Komunikabideetan euskararen presentzia sustatzeko laguntzak" partidaren kargura eginen dira eta 65.000 euro B30002 B3200 7709 334103 "Euskarazko hedabideen berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuei emandako laguntzak" partidaren kargura:



Espediente zenbakia	IFK	Izena	Aurrekontu partida	Urtea	Zenbatekoa
0011-4635-2025-000001	G71367825	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	B30002-B3200-4709-334100	2025	10.800,00
0011-4635-2025-000001	G71367825	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	B30002-B3200-7709-334103	2025	10.800,00
0011-4635-2025-000003	B71304455	ABIAN MEDIA SL	B30002-B3200-7709-334103	2025	1.595,00
0011-4635-2025-000004	G31981509	GUAIXE FUNDAZIOA	B30002-B3200-7709-334103	2025	15.000,00
0011-4635-2025-000005	G31595473	FUNDACION TTIPI-TTAPA	B30002-B3200-7709-334103	2025	15.000,00
0011-4635-2025-000006	G31736077	ASOCIACION CULTURAL MAILLOPE	B30002-B3200-4709-334100	2025	8.820,00
0011-4635-2025-000006	G31736077	ASOCIACION CULTURAL MAILLOPE	B30002-B3200-7709-334103	2025	7.605,00
0011-4635-2025-000007	A01418565	NAFAR IKUSENTZUNekoak SA	B30002-B3200-4709-334100	2025	10.380,00
0011-4635-2025-000008	A01418565	NAFAR IKUSENTZUNekoak SA	B30002-B3200-7709-334103	2025	15.000,00

2. Honako eskaera hau baztertzea, aurrekontuko kreditua agortu delako:

Espediente zenbakia	IFK	Izena
0011-4635-2025-000002	G31267008	ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA

Hedabide honek egindako eskaerari uko egin zaio aurrekontuko kreditua agortu delako: Xorroxin irratia.

3. Dirulaguntza epe bakar batean ordainduko da urtea bukatu baino lehen, organo kudeatzaileak 7. oinarrian eskatutako dokumentazioa berrikusi ondoren. Balorazioaren irizpideen arabera behar bezala egindako proiektuei onartutako aurrekontuaren % 90eko laguntza emanen zaie. Horrez gain, modalitate bakoitzean diruz lagungarria den proiektu bakoitzeko 15.000 euro emanen dira gehienez.

4. Deialdiaren 16. oinarrian adierazten den gardentasun-betebeharraren mende dauden erakunde onuradunek oinarri horretan adierazten den informazioa jakinarazi beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Deialdiko izapide-fitxatik egingen dute. Gardentasun-betebeharrak ez badu, adierazpen bat aurkeztu beharko du.

5. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek ordainketa epeak betetzen dituztela egiaztatzeko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte, deialdiko 3.2 oinarriarekin bat.



6. Ebazpen hau eskatzaile bakoitzari jakinaraztea, eranskin batekin batera, zenbatekoa eta emandako laguntzari buruzko gainerako inguruabarrak adierazita. Laguntza ukatuz gero, arrazoiak adieraziko dira.

7. Ebazpena ondorengoei igorriko zaie: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kontablara, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideako Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administrazioaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

8. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urriaga



I. ERANSKINA / ANEXO I

1.go modalitatea / Modalidad 1

Hedabidea / Medio de comunicación	Enpresa / Empresa	IZK / CIF	Puntuazioa / Puntuación	Onartutako defizita / Déficit aceptado	Esleitutako dirulaguntza / Subvención concedida
Mailope aldizkaria	ASOCIACION CULTURAL MAILOPE	G31736077	53	9.800,00 €	8.820,00 €
Euskalerrria irratia	EUSKALERRRIA IRRATIA FUNDAZIOA	G71367825	50	12.000,00 €	10.800,00 €
Hamaika telebista	NAFAR IKUSENTZUNEOAK SA	A01418565	43	22.922,00 €	10.380,00 €
Guztira: 30.000,00 €					



2. modalitatea / Modalidad 2

Hedabidea / Medio de comunicación	Enpresa / Empresa	IZK / CIF	Puntuazioa / Puntuación	Onartutako defizita / Déficit aceptado	Esleitutako dirulaguntza / Subvención concedida
Hamaika telebista	NAFAR IKUSENTZUNEOAK SA	A01418565	55	44.000,00 €	15.000,00 €
Euskalerrria irratia	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	G71367825	53	12.000,00 €	10.800,00 €
guaixe.eus	GUAIXE FUNDAZIOA	G31981509	52	23.762,00 €	15.000,00 €
erran.eus	FUNDACIÓN TTIPI-TTAPA	G31595473	51	18.026,88 €	15.000,00 €
Mailope aldizkaria	ASOCIACION CULTURAL MAILOPE	G31736077	46	8.450,00 €	7.605,00 €
Naiz irratia	ABIAN MEDIA SL	B71304455	45	14.668,80 €	1.595,00 €
Xorroxin irratia	ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA	G31267008	33	4.565,00 €	0,00 €
Guztira: 65.000,00 €					

